



nekatur

Euskadiko Landa Ostatuaren Elkarte
Asociación de Alojamientos Rurales de Euskadi

COVID-19 NEURRIAK INFORMAZIO TXOSTENA

Dokumentu honetan jasotzen dira gure ostatuan egonaldi seguru bat eskaintzeko hartu ditugun funtsezko neurriak. Mesedez, irakurri arretaz eta birbidali guri dokumentua sinatuta.



Covid-19 babes-neurriak

Kontingentzia-plan bat egin eta indarrean jarri dugu ondorengoa ziurtatzen duena:

- Ostatu hartzen duten pertsonen osasuna bermatzeko neurriak ezartzea.
- Praktikorik egokienak ezartzea zerbitzuan, instalakuntzetan eta bertako langileekin, birusari aurre egiteko.
- Birusaren hedapena ekiditea.
- Jardueraren jarraipena bermatzea, bai eta normaltasunera lehenbailehen itzultzeko beharrezko egokitzapenak egitea ere.
- Osasun agintariak gomendatutako prebentzio-neurriak aplikatzea.

Zuzendaritzak konpromiso irmoa du plan hau aktibo mantentzeko eta eguneratzeko, lan- eta osasun-agintariak argitaratzen dituzten gida, irizpide eta gomendioen arabera.

Plan hau egiterakoan, kontuan izan dira sektore honi aplikatu beharreko legedia, hainbat agindu bidez emana, bai eta Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutuak (ICTE) emandako gomendioak ere.

Covid-19 babes-neurriak

Gure ostalua eta zerbitzua egokitu ditugu ahalik eta segurtasun handiena eskaintzeko:



Zure eskura ditugu kontaktua gutxitzeko hainbat baliabide: *check-ina* online egitea, online ordaintzea, faktura e-mailez bidaltzea...



Bezeroen iritsiera mailakatua izan dadin ahalegintzen gara pilaketak ekiditeko.




Dekorazio-elementuak erretiratu ditugu arriskua gutxitu eta gune komunetan segurtasun-tarteak errespetatu ahal izateko.



Eskaintzen diren otordu-zerbitzuetan 2 metroko segurtasun-tartea errespetatzen dela zainduko da.

Covid-19 babes-neurriak

Gure ostatua eta zerbitzua egokitu ditugu ahalik eta segurtasun handiena eskaintzeko:




Ibilbide seguruak ezarri ditugu eskaileretan, korridoreetan eta gune komunetan.



Zuen eskura jarri ditugu gel hidroalkoholkoa eta maskarak (baten batek eskatuz gero).



Indartu egin dira garbiketa- eta desinfekzio-programak.



Zerbitzuak egokitu ditugu kutsatze-arriskua gutxitzeko, informazio gehiago eska dezakezue.


Covid-19 babes-neurriak



Establezimenduaren arduradunak (eta egonez gero, langileek) formakuntza jaso du(te) Covid-19aren kutsatzea prebenitzearen inguruan eta babeserako beharrezkoak diren baliabideak ditu(zte).



Zure segurtasunaz arduratuko da, kontingentzia-planean zehaztutako arauak aplikatuz eta instalakuntzen garbitasuna indartuz, zu ostatura iritsi aurretik, ostatu hartzen duzun bitartean eta zure egonaldia amaitu ondoren.



Edozein kontsulta edo zalantza izanez gero, jar zaitez haiekin harremanetan.




Euskadin Covid-19aren aurrean osasun-arreta jasotzeko telefonoa: 900.20.30.50.

MADARIAN

Establezimenduak berak hartutako beste zenbait neurri



Covid-19 babes-neurriak



Errespetatu **2 metroko segurtasun-tartea**, bai langileekin eta baita beste bezeroekin ere.



Erabili zure eskura aurkituko dituzun **soluzio desinfektatzaileak**.



Higiene pertsonaleko hondakinak botatzeko, erabili komunetan aurkituko dituzun tapadun zakarrontziak.



Sintomarik izanez gero (sukarra, eztula, eztarriko mina...), jakinarazi ostatuko langileei.

Izen-abizenak:.....

Aitortzen dut Covid-19aren aurrean hartutako babes-neurriak irakurri eta ulertu ditudala.

Sinadura:

Data: / / 2020